



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 28a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, enpresetan eta enpresa proiektuetan izan beharreko presentzia eta parte-hartze publikoak arautzen dituzten irizpideei buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldea egina (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion. Aralar parlamentu-taldea aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait jarduketa gauzatzera A-12 Bidearen autobiarren eta Errioxaren arteko loturarako trazadura berriaren inguruan. José Luis Etxegarai Andueza jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartz arrea Pirinioetan berreskuratzearen alde egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea aurkeztu du (9. or.).

—Erabakia, bost herritar kubatarrek Floridako estatutik kanpo beste epaiketa bat izan dezaten eskatzeari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren ordezkari batzuk Iberdrolako administrazio kontseilura joateari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (11. or.).

—Galdera, 2000-2003 urteetarako kirol instalazioen planaren exekuzioari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitateko Liburutegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).

- Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean paradore nazional berri bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako III. enlegu planeko eta “Berdintasuna, integrazioa eta kohesio soziala” izeneko kon-tusaileko inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko martxoaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2005eko otsailaren 7an hartutako erabakiaren bidez, familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2005eko martxoaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bidez Nafarroako Foru Komunitateko familia ugariendako sostengua arautu zen. Lege horretan familia mota hori definitu zen, haren kideen betebeharrak ezarri eta familien kategoriak sailkatu ziren. Gainera, familia horiendako onura batzuk sortu ziren.

Gero, Estatuak Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea onetsi zuen, ekainaren 19ko 25/1971 Legea, ordu arte indarrean zegoena, ordeztu zuena. Lege horretan arau berriak daude familia ugarien kontzeptuari, baldintzei eta kategoriei buruz, baita zehapan araubideari buruz ere. Arau horiek oinarritzat jotzen dituzten Estatuak Konstituzioko 149. artikuluko 1. idatz-zatiko 1., 7. eta 17. zenbakien arabera.

Horregatik, beharrezkoa da gure legea Estatu-ko legeko arau berrietara egokitzea, kontu zehatz horiei dagokienez.

Beste alde batetik, 40/2003 lege berriak familia ugarien titulua emateko eta berritzeko kontuak arautzen ditu. Autonomia erkidego guztiei dagokie titulu hori eman eta berritzea eta, beraz, baita Nafarroako Foru Komunitari ere. Hala ere, lege horren arabera familia ugarien tituluak Estatu osoan balio duenez, hura aitortu, berritu, aldatu edo galtzeko prozedurak bakarra izan behar du. Horregatik kontu horiek ere oinarritzat jotzen dituzten arauak, eskumen araubidea bera dela kontuan harturik.

Familia ugariei buruz indarra duen foru legean ez dira kontu horiek aipatzen. Arauaren aldaketan haien biltzea komeni da, behar diren berezitasunak zehaztearren.

Beraz, beharrezkoa da Familia ugarietarako buruzko Foru Legea Estatuko legeak indarra hartzean sortu den egoera berrira egokitzea.

Artikulu bakarra. Familia ugarietarako buruzko mar-txoaren 20ko 20/2003 Foru Legearen aldaketa.

20/2003 Foru Legeko 3., 4., 5. eta 13. artikulua-k aldatzen dira, honelaxe utziko direnak:

“3. artikulua. Familia ugarietarako kontzeptua, baldintzak eta kategoriak.

Familia ugarietarako kontzeptua, haien kideek hala-kotzat joak izateko eskubidea aitortzeko eta hari eusteko bete behar dituzten baldintzak eta haiek sailkatzeko kategoriak Estatuko oinarritzko legeetan ezarri direnak dira”.

“4. artikulua. Familia ugarietarako izaera aitortu, aldatu eta galtzea.

1. Familia ugarietarako izaera horretarako eman den titulu ofizial baten bidez frogatuko da. Titulu hori legezko betebeharrak betetzen direnean banatuko da, familia ugarietarako aurrekoek, tutoreak, hartzaileak, zaindariak edo familia unitateko legezko gaitasuna duen beste kide batek eskatuz.

2. Familia ugarietarako titulua aldatu edo indargabetu beharko da familia unitateko kideen zenbatekoa edo titulua emateko baldintzak aldatzen direnean, kategoria hori galduz gero edo familia ugarietarako izaera galduz gero.

3. Familia ugarietarako izaera aitortu eta aldatzea, hura ziurtatzeko titulua ematea eta izaera galdu dela adieraztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organoen artetik arau bidez zehazten denari dagokio, kasu hauetan:

a) Eskatzailea Nafarroako Foru Komunitatean bizi denean.

b) Eskatzailea, familia unitatearen aurrekoetarikoa bat izan beharko duena, Nafarroako Foru Komunitatean bere kasa edo beste inoren kasa lanean ari denean, familia unitateko kideak Europako Batasuneko edo Europako Ekonomia Gunea osatzen duten beste estatuetako herritarrak direnean, Espainian bizi ez badira.

4. Aitortuak izateko eskabidea aurkeztu edo titulu ofiziala aldatzen denetik aurrera izanen dituzte ondorioak kasuan-kasuan familia ugarietarako dagozkien onurek.

5. Familia ugarietarako izaera aitortzen duen tituluak ondorioak sortuko ditu hura emateko baldintzak aldatzen ez direnola”.

“5. artikulua. Familia ugarietarako titularren betebeharrak.

1. Familia ugarietarako titulua aitorturik daukaten familia unitateak osatzen dituzten pertsonak beharturik daude, gehienez ere hiru hilabeteko epean, familian gertatzen den edozein aldaketa organo eskudunari jakinaraztea, aldaketa hori kontuan hartzeko bada titulu horretarako eskubidea aldatu edo iraungitzea.

2. Halaber, beharturik daude urtean urteko lehen hiru hilabeteetan familia unitateak aurreko urtean izaniko dirusarrerak adieraziko dituen aitorpena aurkeztea, Administrazioaren esku daudenean izan ezik, baldin eta dirusarrerak kontuan hartu badira familia ugarietarako jotzeko, kategoria berezian sailkatzeko sartzeko edo menpekotasun ekonomikoaren betebeharra frogatzeko”.

“13. artikulua. Zehapen araubidea.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren arau-haustea arinak hurrengo idatz-zatian aipatzen diren portaera eta gertaerak dira, iruzurra, errua edo zabarkeria hutsa dagoenean.

Horretarako, familia unitateko edozein kide izanen da erruduna, arau-haustetzat jotzen den portaearen bat egiten badu.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Honakoak dira arau-hauste arinak:

a.1 Organo eskudunari gehienez ere hiru hilabeteko epean familian gertatzen den edozein aldaketa ez jakinaraztea, titulurako eskubidea aldatu edo iraungitzeko kontuan hartzeko bada.

a.2 Foru lege honetako 5. artikuluko 2. idatz-zatian xedatu bezala, familia unitateak aurreko urtean izaniko dirusarreraren aitorpena urtean urteko lehen hiru hilabeteetan organo eskudunari ez aurkeztea.

a.3 Titulua erakutsi nahi ez izatea, erakutsi behar denean.

b) Arau-hauste larriak:

b.1 Hiru arau-hauste arin egitea zehapen irmoa gertatu denean.

b.2 Familia ugarietarako izaera lortu edo mantentzeko legeak eskatzen diren betebeharrak edo baldintzetan datuak ezkutatu edo gezurrak egitea.

b.3 Familia ugarietarako titulu ofiziala faltsifikatzea.

b.4 Tituluak honek babesturik ez dauden beste pertsona batzuei uztea.

b.5 Familia ugarien titulu ofiziala eduki edo behar bezala ez erabiltzea edo gehiegikeriaz erabiltzea edo bestela kasuan-kasuan bidezko dena baino kategoria goragokoa duen titulua.

c) Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea, zehapen irmoa gertatuz gero, oso arau-hauste larria izanen da.

3. Izan litezkeen bestelako erantzukizunak deusetan galarazi gabe, hona hemen aurreko idatz-zatian aipatzen diren arau-hausteak egiten dituzten pertsonen ezartzen ahalko zaizkien zehapenak:

a) Arau-hauste arinengatik:

a.1 Banakako gaztigua, idatziz.

a.2 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide gehienez ere hilabetez bertan behera uztea.

b) Arau-hauste larriengatik.

b.1 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide hilabete batetik sei hilabetera bitarte bertan behera uztea.

b.2 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide sei hilabetetik bi urtera bitarte bertan behera uztea.

c) Arau-hauste oso larriengatik.

b.1 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide sei hilabetetik bi urte bitarte bertan behera uztea.

b.2. Onuradun izaera galtzea.”

4. Ezarri beharreko zehapenak mailakatzeko, familia ugarien titulua erabiltzean lorturiko onuraren izaera eta zenbatekoa hartuko da kontuan.”

Xedapen gehigarri bakarra. Datu pertsonalen lagapena.

Ulertuko da familia ugarien izaera eskatzeak berekin dakarrela organo kudeatzaileak familia

unitatearen dirusarrerak egiaztatzeko behar dituen datu pertsonalak lagatzeko onarpena ematea.

Lehenbiziko xedapen iragankorra. Familia ugarien sailkapena.

Lege honek indarra hartzen duenez geroztik, titulua martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera aitorturik daukaten familia ugariak kategoria hauetan sailkatuko dira:

a) Bost seme-alaba baino gutxiago dituzten familiak kategoria orokorrean sartuko dira.

b) Bospasei seme-alaba dituzten familiak eta Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran eta 2. idatz-zatian aipatzen diren kasuetan lau seme-alaba dituztenak kategoria berezian sartuko dira.

c) Sei seme-alaba baino gehiago dituzten familiak ere kategoria berezian sartuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Ekainaren 19ko 25/1971 Legean aipatzen diren onurei eustea.

Ekainaren 19ko 25/1971 Legean xedaturikoarekin bat ohorezko kategoria lortu duten familiek kategoria bereziarendako aurreikusiriko onuretarako eskubideari eutsiko diote, lege honek familia ugaritzat joa izateko eskatzen dituenak baino seme-alaba gutxiago izanagatik ere.

Hirugarren xedapen iragankorra. Tituluak egokitzea.

Arau honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak oraingo tituluak arau berrietara egokituko ditu.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, enpresetan eta enpresa proiektuetan izan beharreko presentzia eta parte-hartze publikoak arautzen dituzten irizpideei buruzkoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, enpresetan eta enpresa proiektuetan izan beharreko presentzia eta parte-hartze publikoak arautzen dituzten irizpideei buruz Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernuak 2004ko abenduaren 20an erabakia hartu zuen baimena emateko Sodena enpresa publikoari Energía Hidroeléctrica de Navarra (EHN) enpresan duen partaidetza (% 39,58) saltzeko 307 milioi eurotan.

Baimena eman aurretik ez dira eragiketa horren abantailak eta eragozpenak eztabaidatu, ezta inolako azalpenik eman ere, eta, horrela, bat-batean, Nafarroak utzi egin du energia berriztagarrien garapenaren sektorean mundu mailan aitzindaria den enpresa batean zuen posizioa, erabakitzeke eta eragina izateko ahalmena ematen ziona.

Izan ere, 1.165 MW-eko potentzia eolikoren jabea zen EHN. Horretaz gain, bazituen 19 zentral elektriko txiki, lasto-errekuntzako 25 MW-eko biomasako planta bat, Espainiako eguzki-planta fotovoltaikorik handiena, aerosorgailuen ekoizpena Ingetur-en bidez (% 100 EHN), norberaren teknologiako 1,5 MW-eko aerosorgailuak eta biodiesel

ekoizteko planta bat. Halaber, datozen urteetan munduan zehar hedatzeko eta hazteko plan zabalazuen.

Ondoren, 2005eko otsailean, Nafarroako Gobernuak, Sodenaren bitartez, Iberdrola enpresaren % 1 erosi du 173,5 milioi euroren truke. Horietatik 120 milioi Nafarroako Kutxarekin sinatutako mailegu baten bidez finantzatuko dira, eta gainerakoa EHN enpresaren salmentarekin lortu dituen gainbalioak dira.

Nafarroako Gobernuak behin eta berriro esan du EHN enpresaren salmentarekin lortutako gainbalioak enpresen arloan erabiliko zirela, Nafarroako interes estrategikoa duten proiektu berriak abiarazteko. Dena den, printzipioz horixe da Sodenaren estatutuetako helburua. Foru Gobernuak ordea, Iberdrolaren % 1 erosi du burtsaren merkatuan.

EHN enpresaren % 50 (Sodenaren eta Nafarroako Kutxaren partaidetza) saldu eta Iberdrolaren % 1 erosi dugu.

Begi bistakoa da Nafarroak Iberdrolan izan dezakeen eragina baino handiagoa zuela EHN enpresan.

Ez dugu ulertzen Nafarroako Gobernuaren estrategia, halakorik baldin badu, Nafarroako Foru Komunitatearentzat interes berezia duten sektore eta enpresetan kokatzeko; halaber, ez dugu ulertzen zer egiten duen diru publikoa burtsan jokatzen; izan ere, argi dago erositako % 1 horrek ez diola Nafarroari enpresa horretan eraginik izateko ahalmenik ematen. EHN enpresan, aldiz, bazuen eragina erabakiak hartzerakoan.

Horrenbestez, eragiketa bikoitz hori erabat zentzugabea eta Nafarroarentzat kaltegarria da.

Hori dela eta, gure taldeak jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zein

diren Nafarroako Gobernuaren jarduna osatzen duten ildo eta irizpide orokorrak, Nafarroako garapen sozio-ekonomikorako estrategikoak diren enpresetan eta enpresen proiektuetan izan beha-

rreko presentzia eta parte-hartze publikoari dago-kienez.

Iruñean, 2005eko otsailaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal-ko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Egunkarien bidez jakin dugu Sodenak Iberdrolaren kapitalaren % 1 erosi duela EHN enpresan zuen partaidetza salduta lortu dituen gainbalioekin. Albiste horrek kezka sortu du gizartean, arrazoi asko tarteko direla, besteak beste:

a) Nafarroak, EHN enpresan zuen partaidetza saltzearekin, kalte nabarmena eragin dio bere industriaren etorkizunari eta kontraesanean erori da aurretik eginiko ahaleginekin, alegia, energia

berriztagarrien eta ez-kutsatzaileen sustapenaren arloan aitzindari izatea ahalbidetu zutenekin.

b) Funts publikoak finantza-jarduera arriskugarri eta espekulaziozkoetan erabiltzea administrazio egokiaren printzipioen aurkakoa da.

c) Espekulaziozko jardun horrek argi uzten du EHN enpresaren partaidetzaren salmenta justifikatzeko erabilitako argudioak erabat funtsgabeak zirela.

d) Nafarroako herritar guztiek dute gobernu egokia izateko eskubidea, eta hori lortzeko eta Nafarroako ogasun publikoa funts publikoekin egindako eragiketa espekulatiboen arriskutik eta eredu txarretik babesteko, beharrezkoa da eragiketa horiek egiteari berehala uztea eta jarduteko arautzat hartzea funts publikoak ez direla inoiz erabiliko espekulaziozko eragiketetan, burtsakoetan edo beste edozeinetan.

e) Horri guztiari gehitu behar zaio Parlamentuari informazioa ezkutatu izana espekulaziozko eragiketa guztietan, eta hori, burtsako espekulazioarekin loturiko jarduteko moduagatik justifikatu nahita ere, administrazioaren argitasunaren eta Parlamentuarekiko leialtasunaren printzipioen aurkakoa da.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea Sodena S.A. enpresari behar diren jarraibideak eman diezazkion, Iberdrola enpresaren akziodun izateari utz diezaion eta funts publikorik erabil ez dezan espekulaziozko jarduerak egiteko.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dira zenbait jarduketa gauzatzera A-12 Bidearen autobia- ren eta Errioxaren arteko loturarako trazadura berriaren inguruan.

JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK AURKEZTU DU

José Luis Etxegarai Andueza jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dira zenbait jarduketa gauzatzera A-12 Bidearen autobia-
ren eta Errioxaren arteko loturarako trazadura berriaren inguruan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Parlamentari honek egunkarien bidez jakin duenez, Gobernuak Errioxan duen ordezkariak oraintsu adierazi du Sustapen Ministerioak erabaki duela A-12 Bidearen autobia-
ren eta Errioxako Estatuaren errepide-sarearen arteko loturarako trazadura berria egitea, proiektuaren Nafarroako zatia nabarmen aldatzea ekarriko duena.

Iragan ostegunean, otsailaren 10ean, Errioxako Parlamentuak ez-legezko proposamen bat onetsi zuen eta haren bidez eskatzen zen lotura Agoncilloko base militarra dagoen tokian egitea.

Lotura berri horrek ekarriko luke jadanik onetsita eta exekutatzeko ari den proiektu bat aldatzea, jada lur desjabetzapenak egin direnean eta lan batzuk, adibidez lur-eruzketak, hasita direnean.

Halaber, beste lursail batzuetan eragina izanen luke eta kalte handiak ekarriko litzeki Vianako herriari, hala nola hango urrezkalurrak eta industria-
aldea banatu beharra, eta kanal hidroelektriko batean ere eragina izanen luke.

Gure ustez, lanak hasi aurretik sinatu behar zuen Nafarroako Gobernuak loturari buruzko behin betiko ituna, batez ere, kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak ari dela autobia hori osotasunean ordaintzen; izan ere, bere lurraldetik pasatzen da eta bere eskumenekoa da. Horretaz gain, proiektu hori uneoro koordinaturik egon bada ere Sustapen Ministerioarekin eta Errioxako Gobernuarekin, dirudienez, Nafarroako Gobernuari ez diote loturaren trazadura berriari buruzko informazio-
ziorik eman.

Hori dela-eta, Askotariko parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onets dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak Sustapen Ministerioa premiatzen du Vianako NA-134 errepidearen eta N-232 errepidearen bikoizketaren arteko lotunea lehenbailehen zehatz dezan A-12 autobia-
ren eta Estatuaren errepide-sarearen arteko lotura gisa, orain arte aurreikusita zegoen moduan, baita horrek A-68 autobidearekin izan dezakeen lotura ere.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Sustapen Ministerioaren proposamena inolaz ere onar ez dezan, kaltegarria baita Nafarroako interesentzat eta, bereziki, Vianako udal nafarraren interesentzat.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Sustapen Ministerioak Agoncilloko lotunea egiteko proposamenari eusten badio, A-12 autobia-
ren eta NA-134 errepidearen arteko lotunea egiteko lanak amai dituzan; izan ere, eskumen osoa du, Nafarroako lurraldean baitago oso-osorik.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hartz arrea Pirinioetan berreskuratzearen alde egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hartz arrea Pirinioetan berreskuratzearen alde egin dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuko osoko bilkurak eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da babes ditzan Andorra, Espainia eta Frantziako gobernuek hartz arrea Pirinioetan berreskuratzeko abiarazi dituzten neurriak, Pirinioetan hartz arrea berreskuratzeko plan koordinatua, alegia.

Zioen azalpena

Hartz arrearen egoera Pirinioetan kaxkarra da duela hainbat urte, eta larritu egin da Cannelle hartzaren heriotzarekin. Cannelle azken hartz eme autoktonoa zen, eta 2004ko azaroan ehiztari batek tiroz akabatu zuen Frantziako eskualdean. Hori dela eta, Espainiako Ingurumen Ministerioak eta Frantziako Ekologia eta Garapen Iraunkorrerako Ministerioak iragarri dute bi estatuok hartz arrea kontserbatzeko ekintzak koordinatu eta indartuko dituztela.

Ekimen hori garatzeko lau lan-ardatz hartuko dira kontuan:

- Gaiarekin zerikusia duten eragile guztien koordinazioa, Nafarroako Foru Komunitatea kasu, hobetu;

- Pirinioetako hartz populazioa indartu, ez baita berez bideragarria. Halaxe gertatzen da Frantzia eta Espainian, Nafarroako eta Aragoiko autonomia erkidegoetan, bizi dien mendebaldeko taldearekin, hori baita, hain zuzen, Pirinioetako hartz autoktonoez osatutako talde bakarra;

- Produktio sektoreei laguntzea, prebentzio eta galerak ordaintzeko neurrien bidez;

- Bertako herritarrei azalpenak emateko eta sentibilizatzeko kanpaina egin.

Espainian eta Nafarroan, hartz arrea espezie babestua da eta mehatxaturiko espezieen katalogo nazionalen sartuta dago, "galzoriko espezieen" kategorian.

Mendebaldeko taldeko hartzak dira Pirinioetako azken hartz autoktonoak.

Hartzak betidanik bizi izan dira eta bizi dira Frantzia nahiz Espainian, eta izenak izen, ez dira espainiarrak, ezta frantsesak ere; horrenbestez, mugaren alde batean zein bestean egon daitezke. Pirinioetako hartzak dira, besterik gabe, baita nafarrak ere, Nafarroako altxor bat, alegia.

Pirinioetako mendebaldeko hartz autoktonoak ugal daitezen hartz gehiago birsartzea da aldaera genetiko horrek bizirik irautea bermatzeko eta, finean, biodibertsitatea babesteko modu bakarra.

Mendebaldeko eskualdean hartzak birsartzeak ahalbidetuko du hartzaren populazioa duela 10 edo 15 urteko kopuruetara iristea eta, horrenbestez, hartzaren populazio errealista eta Nafarroako iparraldeko hartzaren haranetako errealitatearekin eta bizitzarekin erabat bateragarria osatzea. Hartzak birsartzea aukera logiko eta zentzuduna da.

Hartzak birsartu aurretik informazio eta sentibilizazio kanpainak egin behar dira, baita inplikaturiko sektoreetan babes neurriak ezarri ere.

Oso garrantzitsua da nekazariei eta abeltzainei galerak arin eta azkar ordaintzea. Horretaz gain, berriazko laguntza-mekanismoak abiarazi behar dira, hala nola artzainei zuzendurikoak. Horien artean aipa daitezke: atari-txakurrak ematea, goimendiko larreetako txabolak zaintzeko laguntzak ematea eta artaldeak gabez babestea.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ohar dadin Pirinioetako hartz arrea galzoritik salbatzeko azken aukera dela hau. Halaber, Nafarroan oraindik bizirik dirauen Pirinioetako hartzaren aldaera genetikoa betiko ez desagertzeko azken aukera da hau.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzak aktiboan aritu dadin Espainiako Ingurumen Ministerioarekin eta Frantziako Ekologia eta Garapen Iraunkorrerako Ministerioarekin, baita eskualdeko beste autonomia erkidegoetako gobernuarekin eta naturaren babeserako erakundeekin (GKE), Pirinioetan hartz arrea berreskuratzeko plan koordinatua arrakastaz burutu dadin eta Nafarroa erreferente bihurtu dadin naturaren defentsari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskura dituen neurri guztiak abiaraz ditzan, bai foru erakundeek beren aurre-

kontuaren kargura abiaraz ditzaketenak, bai Europar Batasunaren programen esparruan gara daitezkeenak, besteak beste, LIFE programaren eta Habitats zuzentarauaren esparruan, hain garrantzitsua den ekintzaren arrakasta ziurtatze aldera, ezin baliotsuagoa baita gure eta ondorengo belaunaldien etorkizunerako. Halaber, premiatzen du Nafarroako iparraldeko hartzen eremuen zehaztapena eta babesa berrikus dezan, Natura 2000 sarean ezarritako printzipio zuzendarien arabera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontzientziario kanpainak abiaraz ditzan, Nafarroako herritarrak biodibertsitatea eta naturguneak babesteko maila guztietako neurriak hartzeko beharraz ohartarazteko, eta hedatze eta sentsibilizazio kanpainak egin ditzan Pirinioetako hartzak bizi diren eremuetan.

Iruñean, 2005eko otsailaren 17an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Erabakia, bost herritar kubatarrek Floridako estatutik kanpo beste epaiketa bat izan dezaten eskatzeari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak 2005eko otsailaren 16an erabaki zuen Eledunen Batzarrari igortzea bost herritar kubatarrek Floridako estatutik kanpo beste epaiketa bat izan dezaten eskatzeari buruzko erabaki proposamena. Hori ikusirik, erabaki dugu:

Aipatu proposamena onestea. Hona testua hitzez hitz:

“1.- Estatu Batuetako justiziari eskatzea Floridako estatutik kanpo beste epaiketa bat egin

dezan, epaiketa ez dadin berriro ere manipulatu, Miami kubatarren sektore batzuen gorrotoa dela eta.

2.- René González, Ramón Labanino, Fernando González, Antonio Guerrero eta Gerardo Hernándezen familiei elkartasuna adieraztea, une tris-tea eta duineza pairatzen ari baitira.

3.- Adierazpen hau bidaltzea Kubak eta Estatu Batuek Espainian dituzten enbaxadetara eta Kanpo Arazoetarako Ministeriora.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren ordezkari batzuk Iberdrolako administrazio kontseilura joateari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuaren ordezkari batzuk Iberdrolako administrazio kontseilura joateari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Legebiltza-

reko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran lehenbailehen erantzun dakion ahoz:

Egunkarietan agerturiko datuen arabera, Nafarroako Gobernuak Iberdrola enpresaren akzioen % 1 erosi du.

– Iberdrola enpresaren Administrazio Kontseilura joatea al dakar horrek? Baiezkoan, zer irizpide erabiliko da Nafarroaren izenean nor joango den erabakitzeke, nor izanen da pertsona hori eta zer ordainsari izanen du joateagatik?

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, 2000-2003 urteetarako kirol instalazioen planaren exekuzioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 2000-2003 urteetarako kirol instalazioen planaren exekuzioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuaren 2000ko ekainaren 5eko erabakiz, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioetarako 2000-2003 plana onetsi zen.

Parlamnetari José Andrés Burguete Torres jaunak informazioa eskatu zuen kirol instalazioetarako planaren garapenari buruz, eta Gizarte Ongiza-

te, Kirol eta Gazteri kontseilariak erantzun zuenez (2003ko maiatzaren 15eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala), haren babesean eskatutako zenbait eskaerari ezin izan zitzaion baietzik eman; izan ere, Nafarroako 2002ko aurrekontu orokorren kargura laguntzak emateko aurrekontuko dirurik ez zegoen eta toki entitateek 2002an hasitako espedienteetarako dirulaguntzak 2003ko aurrekontuko diruaren menpe gelditu ziren.

Halaber, galdetuta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak hitzarmen berariazkorik aurrekutsita zuen, finantzatu ahal izateko eskaturiko obrak, planean zeudenak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu ez zituenak, kontseilari jaunak erantzun zuen Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aurrekontuan zegoen dirua ikusirik ezarriko zuela aurreikuspena, erantzuna eman zen egunean ez baitzegoen egoera horretan zeuden eskaeren zerrendarik.

Ikusirik ordutik igarotako denbora, pentsatzea da aipatu planaren aurreikuspenak erabat gauzatu direla.

Aipatu plana onetsi ondoren, Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea onetsi zen. Lege horren 79. artikuluan ezartzen denez, "Foru Komunitateko Administrazioak egokitzat hartzen dituen erakundeek lankidetzarekin prestatuko ditu kirol instalazioen plan zuzentzaileak eta jarduketan programak, bai sektorekoak eta lurraldekoak bai orokorrak, Nafarroan kirol instalazioen eta azpiegituren sare bat orientatu eta sustatzeko, batetik, eta biztanleen kirol jarduera bultzatu eta haren kalitatea hobetzeko helburuarekin". Halaber, ezartzen da "plan zuzentzaileak Nafarroako Gobernuak onetsi eta Nafarroako Parlamentura igorriko dituela tramitatu eta onesteko", baita "plan horien exekuzioaren txostenak Parlamentura igorriko direla ere, erakunde hau jakinaren gainean egon dadin".

Kontseilari Reyes Berruezo andreak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean 2003ko irailaren 30ean eginiko agerraldian iragarri zuen 2004-2007 aldirako beste kirol instalazioetarako plan zuzentzaile bat egingo zela. Ondoren, 2004ko apirilaren 6an, kontseilari José Ignacio Palacios jaunak 2005-2007 aldirako azpiegitura plana iragarri zuen batzorde berean, eta plan horri buruz hauxe esan zuen: "Plan zuzentzaile hori diseinuko azken fasean dago. Heldu den ekainean igorriko dugu Nafarroako Parlamentura, eztabaidatu eta onetsi dezan. Gure helburua da plana lehenbailehen argitaratzea, aurtengo azken hiruhilekoan udalek dirulaguntza eskaerak aurkez ditzaten, kirol instalazioak eraikitzeke edo eraberritzeke". Harrezkero Parlamentu honek ez du izan plan horri buruzko berririk.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

1. Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioetarako 2000-2003 planaren exekuzioari buruzko azken datuak, inbertitutako zenbateko osoa eta zenbateko horren banaketa barne, aurrekontu ekitaldien eta jarduketan arabera.

2. Deialdi publikoen eta toki entitateekin edo bestelako elkarteekin eginiko itunen bidez emandako dirulaguntzen zerranda, eta kasua bada, aipatu itunen kopiak.

3. Gobernuak asmorik ba al dauka 2000-2003 planaren exekuzioari buruzko oroit-idazki osoa Parlamentura igortzeko?

4. Gobernuak asmorik ba al dauka kirol instalazioetarako beste plan zuzentzaile bat onesteko eta Parlamentura igortzeko? Hala bada, zein da aurreikusirik dagoen egutegia?

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitateko Liburutegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitateko Liburutegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2004ko azaroaren 3an, Nafarroako Gobernuaren prentsa kabineteak jakinarazi zuenez, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegien Zerbitzuak eta Nafarroako Unibertsitateko liburutegiak aurreko urteetan sinatutako lankidetzaren hitzarmena berritu dute. Hitzarmen horren xedea da aipatu liburutegiaren erabilerak publikoa zientzialariei eta, bereziki, unibertsitate horretan matrikulatuta ez dauden ikertzaile nafarrei, zabaltea.

Hitzarmen horren arabera, azken urteotan hainbat pertsonak lortu ahal izan dute Nafarroako Unibertsitateko liburutegiak ematen duen ikertzaile-txartela, baita liburutegi horretako funtsak baliatu ere. Pasa den urtarrilean, Nafarroako Unibertsitateko liburutegiak jakinarazi zien aipatu ikertzaileei Nafarroako Gobernuarekin zuen hitzarmena jada ez dagoela indarrean eta, horrenbestez, ezin dutela ikertzaile-txartela berritu.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi du:

1. Ba al da indarrean dagoen lankidetzaren hitzarmenik Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitateko liburutegiaren artean? Zein da sinatutako azken hitzarmenaren amaiera data?

2. Kasua bada, zer konpromiso hartu ditu Nafarroako Unibertsitateak, unibertsitate horrekin loturik ez duten ikertzaileei liburutegia erabiltzeko baimena emateko?

3. Zer jaso edo jasotzen du Nafarroako Unibertsitateak Nafarroako Gobernuarekin sinatutako azken lankidetzaren hitzarmenaren truke?

4. Kasua bada, zer asmo du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitatearekiko lankidetzaren hitzarmena berritzeari dagokionez?

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean paradore nazional berri bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxean paradore nazional berri bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Miren Egaña Descarga Aralar parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, honako galdera egiten du, Kultura eta Turismo kontseilariak erantzun diezaien:

2004ko abenduaren 17an, Diario de Noticias egunkarian argitaratu ziren Raimon Martínez Turismo idazkari nagusiak Lizarrako paradoreari buruz eginiko adierazpenak. Hauxe esan zuen, hitzez hitz: “Edonola ere, lagapen hori (Santo Domingoko zahar-etxearena) 2005eko lehen hiru hilekoa bukatu aurretik egin beharko da. Ezin duguna da ez zuretzat, ez niretzat egin. Beste aukera batzuk ere badira eta epe honetan argitu behar duguna da paradorea Lizarran eginen den ala ez. Denbora arin doa!” Hori dela eta, parlamentari honek ondoko galderak egin ditu:

Kultura eta Turismo Departamentuak ba al daki adierazpen horiek baldintza dezaketen paradore nazionala Santo Domingo zahar-etxean egitea?

Departamentuak aztertu al du paradore nazionala Lizarrako beste tokiren batean eraikitzeko aukera?

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, Nafarroako III. enlegu planeko eta “Berdintasuna, integrazioa eta kohesio soziala” izeneko kontusaileko inbertsioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Nafarroako III. enlegu planeko eta “Berdintasuna, integrazioa eta kohesio soziala” izeneko kontusaileko inbertsioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Kontuan hartuta Nafarroako III. enlegu plana eta “Berdintasuna, integrazioa eta kohesio soziala” izeneko kontusailaren “Gazteen enpleguaren sustapena” ataleko “Prestakuntza beketarako transferentziak” azpiatalean ezarrita dagoen diru kopurua, zer neurri zehaztuetan eta zer denbora mugarekin inbertituko da?

Ikerkuntza eta garapenari eta berrikuntzari laguntzak emateko araubideari loturiko kontratudunei (2000ko abenduaren 13ko 150. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) zergatik ez zaizkie atxikitzen gorabehera arruntei, lan gorabeherai eta PFEZri dagozkien kontzeptuak?

Iruñean, 2005eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta eta aipatu deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat (deialdia 2005eko urtarrilaren 31ko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara), ondoko erabakia hartu dut:

1. 4.5 oinarriak ezarritakoarekin bat, onartu eta baztertuen behin betiko ondoko zerrenda onestea:

Onartuak:

Aldaz Pastor, Alberto
Aristu Beaumont, Pedro
Lerga Iturbide, Begoña

Baztertuak:

Inor ere ez.

2. Hauexek dira merezimendu lehiaketa epaitu behar duten epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: M.^a Jesús Aranda Lasheras andrea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa.

Ordezkoa: Helena Berruezo Valencia andrea, Nafarroako Parlamentuko bigarren lehendakariordea.

Epaimahaiko kidea: Eduardo Aranaz Jiménez jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Ander Irizar Apaolaza jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Epaimahaiko idazkaria: Enrique Mateo Sanz jauna, Nafarroako Arartekoaren aholkularia, epaimahai kalifikatzailearen idazkari lanetan arituko dena.

Ordezkoa: Aurelio Romero Serrano jauna, Nafarroako Arartekoaren aholkularia.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	